BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3659

EBAZPENA, 2013ko abuztuaren 12koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena. Honen bitartez, zabaldu egiten da 2013ko uztailaren 15eko Ebazpenean eskabideak aurkezteko ezarri zen epea. Ebazpen haren bidez, Mutrikuko portuan amarralekuak erabiltzeko baimenak emateko deialdia argitaratu zen.

2013ko uztailaren 15eko Ebazpenaren bidez (2013ko uztailaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria), Mutrikuko portuan amarralekuak erabiltzeko baimenak emateko deialdia argitaratu zen.

Horren haritik, egokitzat jotzen da eskaerak aurkezteko epea zabaltzea 2013ko abuztuaren 28ra arte, egun hori barne dela, hain zuzen ere eskatzaileei eskaeretarako dokumentazioa behar bezala aurkezten laguntzeko. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2013ko abuztuaren 28ra arte zabaltzea eskaerak aurkezteko ezarritako epea. Epe hori, hasiera batean, 2013ko uztailaren 15eko Ebazpenaren eranskineko bosgarren oinarrian zegpen ezarrita.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abuztuaren 12a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA ALMUDENA RUIZ DE ANGULO DEL CAMPO.